



“BERPIZTU”

A photograph showing several people's hands raised in a circle, symbolizing unity and support. The background is a blurred outdoor setting with trees and a building.

**Euskadiko Ekonomia eta
Enplegua Suspertzeko
Programa**

www.irekia.euskadi.eus/berpiztu

*BEHAR DENA EGINGO DUGU
AHALIK ETA ENPLEGU GEHIEN
MANTENTZEKO ETA GALDUTAKO
ENPLEGU GUZTIA
BERRESKURATZEKO*

(Lehendakaria. Mahai Sozioekonomikoa, 2020/05/27)

BERPIZTU

1. Bi helburu nagusi
2. Ezaugarriak
3. Hamar konpromiso
4. Ardatz egituratzaileak
5. Inbertsioen laburpena eta emaitzak
6. Trakzio-politiken eta jarduera-ildoen xehetasuna
 - I. ardatza: Ekonomia suspertzea
 - II. ardatza: Enplegua
7. Egindako kontraste prozesua
8. Gobernantza eskema

BERPIZTU

1. Bi helburu nagusi

**EKONOMIA
BERRINDARTZEA**

**ENPLEGUA
SUSTATZEA**

BERPIZTU

13.250 MM
Inbertsioa

130.000
Enplegu



%10etik beherako langabezia

BERPIZTU

2. Ezaugarriak

- **Euskal erakundeen artean partekatutako konpromisoa**
- **Hiru trantsizio globalei erantzuna**
- **Next Generation EU-rekin lerrokatuta**
- **Garapen Jasangarrirako Helburuekin konprometitua**
- **Herri-estrategia global batean txertatua**

Euskal erakundeen artean partekatutako konpromisoa

Ekonomia eta enplegua suspertzearen aldeko konpromisoaren oinarriak (2020ko irailak 29)

- Erantzun globala, enplegua lehenetsiko duena
- 3 trantsizio globali aurre egiteko eraldaketa-palanka
- Susperraldi ekonomiko eta sozialerako konpromisoa, herri-estrategian txertatua
- “Next Generation EU” Errekuperazio Funts Europarrarekin bat datorren konpromisoa
- Abiapuntu sendoa duen konpromisoa



EKONOMIA ETA ENPLEGUA SUSPERTZEAREN ALDEKO KONPROMISOAREN OINARRIAK



- Bi jarduera-ardatz handi eta zeharkako eremu bat
 - I. ardatza – Ekonomia suspertzea
 - II. ardatza – Enplegua sortzea
 - Zeharkako eremua: Enpleguaren kalitatearen hobekuntza
- Finantzaketa-iturriak
- Erakundearteko koordinazio-mahaiaren sorrera
- Euskadiko toki-erakundeetara irekitako konpromisoa
- Eragile ekonomiko eta sozialei irekitako konpromisoa

BERPIZTU: Hiru trantsizio globalei erantzuna

EUSKADI DIGITALA



TRANSIZIO TEKNOLOGIKO-DIGITALA

- Digitalizazioa
- Adimen artifiziala eta Big Data
- Teknologia, herritarren zerbitzura
- Automatizazioa
- Zibersegurtasuna
- Bidezko ekonomia digital eta lehiakorraren sustapena

EUSKADI BERDEA



TRANSIZIO ENERGETIKO-KLIMATIKOA

- Neutraltasun klimatikoa
- Energia-sistemaren deskarbonizazioa
- Baliabideen eta energiaren erabilera efizientea – ekonomia zirkularra–
- Mugikortasun jasangarria eta adimenduna
- Bidezko trantsizio energetikoa
- From farm to fork


EUSKADI INKLUSIBOA



TRANSIZIO SOZIAL ETA SANITARIOA

- Osasun-sistema eta arrisku pandemikoak
- Demografia eta zahartze osasuntsua
- Migrazioa
- Genero-berdintasuna
- Zainketa-eredu berriak
- Gizarte- eta lurralde-kohesioa

BERPIZTU: “Next Generation EU”rekin lerrokatuta



Garapen Jasangarrirako Helburuekin konprometitua



5 
GENERO
BERDINTASUNA

6 
UR GARBIA ETA
SANEAMENDUA

7 
ENERGIA
IRISGARRIA ETA
EZ KUTSAGARRIA

8 
LAN DUINA ETA
HAZKUNDE
EKONOMIKOA

9 
INDUSTRIA,
BERRIKUNTZA ETA
AZPIEGITURA


10 
DESBERDINTASUNAK
MURRIZTEA

11 
HIRI ETA
KOMUNITATE
JASANGARRIAK

12 
EKOIZPEN ETA
KONTSUMO
ARDURATSUAK

13 
KLIMAREN ALDEKO
EKINTZA

BERPIZTU: Herri-estrategia global batean txertatua



3. Hamar Konpromiso

1) Inbertsio publikoarekiko konpromisoa: 13.250 milioi euroko ahalegin publikoa egitea, ekonomia suspertzeko eta enplegua dinamizatzeko.

2) Enpleguarekiko konpromisoa: Langabezia-tasa % 10etik behera kokatzea eta 130.000 enplegu dinamizatzea.

3) Gazteriarekiko konpromisoa: Lehen lan-esperientzia eskaintzea 25.000 gazte baino gehiagori, hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko programetan, kontratazio-konpromisoa duen prestakuntzan, enplegurako prestakuntza dualean, gazte-ekintzailertzan eta nazioarteko espezializazioan.

4) Enpleguaren kalitatea hobetzeko konpromisoa: Gizonen eta emakumeen artean soldata-arrakala murrizteko, zaintza-eredu arduratsu berriak garatzeko, lana eta familia uztartzeko eta kontratazioan iruzurra jazartzeko programak garatzea.

5) I+G+b-rekiko konpromisoa: Inbertsio publikoa urteko batez bestekoan % 6 areagotzeko lan egitea, Euskadi berrikuntza-gune europarra izan dadin eta trantsizio globalei aukera moduan egin dakien aurre.

6) Estrategia europarrarekiko konpromisoa: Europar Batasunak ezarritako eraldaketa-ardatz nagusiekin bat, Euskadi digitalagoa, Euskadi berdeagoa eta Euskadi inklusiboagoa eraikitzea.

7) Garapen jasangarrirako helburuekiko konpromisoa: Emakume eta gizonen arteko berdintasunarekin zuzenean lotutako garapen jasangarrirako helburuei erantzutea, bai eta erronka teknologikoei, erronka sozialei nahiz ingurumen-arloko erronkei ere. Horiek, izan ere, funtsezko zeregina dute energia berriztagarrietaranzko trantsizioa, eraginkortasun energetikoko irizpideetan oinarritutako hiri-birgaikuntza energetikoa, eta mugikortasun jasangarria (trenbidea izanik lehentasunezko ardatza) bizkortzeko orduan.

8) Industriarekiko konpromisoa: Euskadiko ekonomia eraldatu eta berpizteko motortzat industria jotzen du. Industria aurreratua, digitalizatua eta nazioartekotua. Industria berria, inklusiboagoa eta partaideagoa.

9) Enplegu publikoarekiko konpromisoa: Administrazio publikoaren egonkortasuna eta berrikuntza sustatzea, informazioaren teknologia berriak eta digitalizazioa sartuz, herritarrei ematen zaizkien zerbitzuen kalitatea hobetzeko.

10) Zerbitzu publikoak hobetzeko konpromisoa: Osasun- eta hezkuntza-sistemak fisikoki eta digitalki eraldatzea. Osasuna, zahartzarora eta zaintzak jotzen dira ekonomiarekin eta enpleguarekin lotutako aukerantxo berri horiek dinamizatzen dituzten elementutzat.

4. Bi ardatz egituratzaileak...

I. ardatza – Ekonomia suspertzea

Politika eragileak

1. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialen gaineko inbertsioa

2. Ikerketa, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala

3. Energia eta ingurumen trantsizioa

4. Industria eta ETEak, Zerbitzu Aurreratuak, Sormen Industriak eta Nazioartekotzea

5. Elikagaigintza

6. Merkataritza eta Turismo eta Kultura Industria

II. ardatza – Enplegua sortzea

Politika eragileak

7. Ekintzailtza. Enpresa berriak

8. Enplegurako prestakuntza

9. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak

10. Renove programak. Eraikuntzaren birgaikuntza

11. Enplegu publikoaren eskaintzak

12. Gazteen enplegua sustatzeko Talka-plana


... eta zeharkako eremu bat

Enpleguaren kalitatea eta genero berdintasuna

- * Gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala murriztea
- * Prekaritatea murriztea (aldi baterako kontratuak eta lanaldi partzialekoak)
- * Prebentzioa eta lan-segurtasuna areagotzea
- * Lan-ikuskaritza indartzea
- * Erantzukidetasuna eta lanaren eta familiaren kontziliazioa sustatzea
- * Enpresa-eredu integratzaileagoak eta parte-hartzaileagoak lortzeko bilakaera
- * Elkarrizketa soziala eta lan-harremanen esparru autonomoa bultzatzea

5. Inbertsioen laburpena eta emaitzak

13.250 milioi euroko inbertsioa




(*) 2020-2024 legegintzaldiko inbertsioari eta enpleguari buruzko datuak. Aurrekontuetan 2020ko guztizkoaren %50 kalkulatu da –abalak salbu, %100ean zergapetzen baitira-

“Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Programa”(2020-2024)

Inbertsioak: 13.250 Milioi Euro

Enpleguak: 130.000 (*)



(*) Estimazio biribilduak

BERPIZTU

6. Politika eragileen eta jardueraildoen xehetasuna

I. ardatza: Ekonomia suspertzea

II. ardatza: Enplegua

I. ARDATZA: EKONOMIA SUSPERTZEA

POLITIKA ERAGILEEN XEHETASUNA

1. AZPIEGITURA PUBLIKO, EKONOMIKO ETA SOZIAL BERRIAK

2. IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA

3. ENERGIA- ETA INGURUMEN- TRANTSIZIOA

**4. INDUSTRIA ETA ETE-AK, ZERBITZU AURRERATUAK, SORMEN-
INDUSTRIAK ETA NAZIOARTEKOTZEA**

5. ELIKAGAIGINTZA

6. MERKATARITZA ETA TURISMO ETA KULTURA INDUSTRIA

I. ardatza – Ekonomia suspertzea. Inbertsioen laburpena

Politika eragileak	2020-2024
1. AZPIEGITURA PUBLIKO, EKONOMIKO ETA SOZIAL BERRIAK	2.976
2. IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA	2.512
3. ENERGIA- ETA INGURUMEN- TRANTSIZIOA	357
4. INDUSTRIA ETA ETE-AK, ZERBITZU AURRERATUAK, SORMEN-INDUSTRIAK ETA NAZIOARTEKOTZEA	1.164
5. ELIKAGAIGINTZA	613
6. MERKATARITZA ETA TURISMO ETA KULTURA INDUSTRIA	313
AURREKONTUAK GUZTIRA	7.935

(*) 2020-2024 legealdirako kalkulaturako aurrekontuen datuak, legegintzaldia hasi eta lehenengo urtean egozpena eginda (% 50eko egozpena 2020an).

Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barne-berresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude.

I. ardatza – Ekonomia Suspertzea

1.politika Inbertsioak bultzatzea azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan

	Azpiegitura publikoak (zifrak milioi eurotan)	Inbertsioak 2020-2024
✓	Trenbide-azpiegiturak	1.563
✓	Portuetako azpiegiturak	102
✓	Azpiegitura sanitarioak (<i>fisikoak eta digitalak</i>)	323
✓	Hezkuntza-azpiegiturak (<i>fisikoak eta digitalak</i>)	451
✓	Azpiegitura hidraulikoak	120
✓	Etxebizitza-azpiegiturak	285
✓	Kulturako azpiegiturak	132
	TOTAL	2.976

Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barne-berresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude.

I. ardatza – Ekonomia Suspertzea

1.politika Inbertsioak bultzatzea azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan

Jarduera-ildoak

Euskadiko Garraio Jasangarriaren 2030 Gida Plana

Trenbide-azpiegiturak

- Trenbideko inbertsioei lehentasuna ematea eta trenbideko garraioa lurreko garraio publikoaren ardatz bihurtzea horrelako proiektuen bidez: Euskal Y-a, Loiolako tren-aldatzailea, Durango-Bilbo lotura, Pasaia-Irun topoa, Eibar-Donostia linea, Gasteizko eta Bilboko tranbiaren luzapenak, etab.

Portuetako azpiegiturak

- Portuko azpiegiturak berritzeko eta modernizatzeko plana egitea, irisgarritasuna eta trenbideko eta portuko konexioak hobetzea barne.

Azpiegitura sanitarioak

- Osasun-sektorea eraldatzea, azpiegitura fisikoak hobetuz eta berrituz, ospitaleetako ekipamenduak eta instalazioak hobetuz eta pazienteari emandako zerbitzuen eta osasun-sistema osoaren digitalizazioa indartuz.

Etxebizitza-azpiegiturak

- Lurzoru-zuzkidurak eta inbertsioak egitea, alokairuko etxebizitzaren eskaintza publikoa finkatzeko eta eraikitako parkea birgaitzeko

Hezkuntza-azpiegiturak

- Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta Unibertsitate Hezkuntzako ikastetxeen sarea mantentzeko eta indartzeko inbertsioak egitea, irakaskuntza-sistemaren eraldaketari eta digitalizazioari arreta berezia eskainiz

Kulturako azpiegiturak

- Inbertsioak egitea kultura-zentro eta -ekipamenduetan eta ondare historikoarekin lotutakoetan

Azpiegitura hidraulikoak

- Zenbait arro eta udalerritako saneamenduko, hornidurako eta ur-arazketako oinarrizko azpiegiturak osatzea

I. ardatza – Ekonomia Suspertzea

2. politika Ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala sustatzea

I+G+B eta eraldaketa digitala (zifrak milioi eurotan)	Inbertsioak 2020-2024
✓ Ikerketa zientifikoa eta unibertsitarioa(*)	784
✓ Ikerketa teknologikoa eta industrial	1.016
✓ Ikerketa eta elikagai-garapena	119
✓ Ikerketa sanitarioa (*)	265
✓ Berrikuntza publikoa eta Administrazio digitala	107
✓ Berrikuntzako Funts Estrategikoa	221
GUZTIRA	2.512

(*) Unibertsitate eta osasun ikerkuntzan diharduten langileen gastuak barne

Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuako egoera-markoa dira. Aldaketak edo barne-berresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude.

I. ardatza – Ekonomia Suspertzea

2. politika Ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala sustatzea

Jarduera-ildoak

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA PLANA: ZTBP 2030 (+ aurrekontuen hazkundearen urteko % 6)

Espezializazio adimenduna (RIS3):

- RIS3 Euskadi 2030 espezializazio adimenduneko oinarriak garatzeko ekimenak sustatzea, 3 lehentasun estrategikoak (industria adimenduna; energia garbiak; eta osasun pertsonalizatua) eta 4 aukera-lurraldeak (elikadura osasuntsua, ekoberrikuntza; hiri jasangarriak; sormen- eta kultura-industriak) jarraituz.
- Europa Horizonteko xedeekin bat, zeharkako ekimen eragileak sartzea (zahartze osasuntsua; mugikortasun elektrikoa eta ekonomia zirkularra), gizarte-erronken eta RIS3 strategiaren artean integrazio handiagoa lortze aldera.
- Espezializazio adimendunak gidatuko ditu, era berean, lehentasunezko euskal ekosistema industrialak, bai eta horiek balio-kate europarretan **duten integrazioa ere**.

Zeharkako ekimen eragileak

- ✓ Zahartze osasuntsua
- ✓ Mugikortasun elektrikoa
- ✓ Ekonomia zirkularra

Berrikuntzako Funtz Estrategikoa

- RIS3 Estrategia garatzeko ekimenak sustatzea, sailen arteko jarduketekin koordinatua eta elkarren osagarri izanik.

Bikaintasun zientifikoa

- **Ikerketa zientifikoa:** BERC Programa.
- **Unibertsitate-ikerketa:** UPV/EHUko, Mondragon Unibertsitateko eta Deustuko Unibertsitateko programa-kontratua eta ikerketa-taldeak.

Teknologia- eta industria-lidergoa

- **Ikerketa teknologikoa eta industrial:** Hazitek, Elkartek eta Emaitek programak.
- **Ikerketa sanitarioa:** Osasun- arloko ikerketa-proiektuen programak (Innosasun, Medtech eta Valiosasun) eta Erosketa Publiko Berritzailea.
- **Elikadura-ikerketa:** bioekonomia eta elikadura zirkularra bultzatzea.

Berrikuntza irekia

- **Enpresa-berrikuntza:** Innobideak Lehiabide, Kudeabide eta Pertsonak programak.
- **ETeen berrikuntza:** Hazinnova, Basque Industry 4.0, BIND 4.0 programak.
- **Berrikuntza publikoa:** administrazio berritua eta digitala

Talentua

- **Talentu zientifikoa erakartzea:** Ikerbasque (Research Fellows, Research Associate, Research Professor programak).
- **Ikertzaile gazteen prestakuntza:** Posdocy Predoc programak.
- **Talentu teknologikoa:** Berrikertu Programa.

I. ardatza – Ekonomia Suspertzea

3. politika Energia- eta ingurumen-trantsizioa sustatzea

Energia- eta ingurumen-trantsizioko inbertsioak (zifrak milioi eurotan)	Inversiones 2020-2024
✓ Energiaren eta baliabideen erabilera eraginkorra	86
✓ Teknologia berrietan oinarritutako energia berriztagarrien bultzada	48
✓ Garraio eta mugikortasun jasangarri eta adimendunetarako lehentasuna	81
✓ Ingurumenaren babesa	57
✓ Natura-ondarearen babesa eta klima-aldaketaren aurkako borroka	85
GUZTIRA	357

Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barne-berresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude.

I. ardatza – Ekonomia Suspertzea

3. politika Energia- eta ingurumen-trantsizioa sustatzea

Jarduera-ildoak

Euskadiko estrategia energetikoa, Ingurumen-estrategia eta Ekonomia zirkularraren estrategia

Energiaren eta baliabideen erabilera eraginkorra

- Eraginkortasun energetikoa eta ekonomia zirkularra hobetzeko inbertsioak babestea sektore ekonomiko eta sozial guztietan: industria-enpresetan, zerbitzu-enpresetan, administrazio publikoan, eraikinen jabeetan (RENOVE programak*), turismo- eta ostalaritza-establezimenduetan nahiz kultura- ekipamenduetan.
- Basoko bioekonomia garatu, ekonomiako sektore gakoak eraldatzeko aukera gisa, bio produktuen eta materialen sorreran oinarrituta.

Berriztagarrien bultzada, teknologia berriak integratuz

- Teknologia berrien integrazioarekin energia berriztagarrien alde egiten duten instalazioetan inbertsioak sustatzea (biomasa eta biogasak, geotermia, parke eolikoak eta fotovoltaikoak, etab.), baita teknologia energetiko berrien balidazioko eta erakustaldi esperimentaleko instalazioetan ere.

Natura-ondarearen babesa eta klima-aldaketaren aurkako borroka

- Tokiko eta eskualdeko energiako, natura-ondarea babesteko eta klima-ekintzako programa eta plan integratuak bultzatzea Udalsarea 2030 sarearen bidez, "Karbono gutxi isurtzen duen udalerrria/eskualdea" kalifikazioa sortuz

Garraio eta mugikortasun jasangarri eta adimendunetarako lehentasuna

- Garraioan eta mugikortasun efizientean inbertsio gehiago egitea, elektrifikazioa eta erregai fosilen ordezeko ereduak bultzatuz (Renove Ibilgailuak programa)

Energiaren elektrifikazioa

- Sorkuntza banatuko proiektuak, ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak, banaketa-sare elektrikoaren digitalizazioa eta smarterizazioa, hidrogeno berdea sortzeko proiektuak eta abar bultzatzea eta ezartzea

Ingurumenaren babesa

- Ingurumenaren babes eraginkorra lortzea, jarduera ekonomikoak eta garatzen diren ingurunea bateragarri eginez.

I. ardatza – Ekonomia Suspertzea

4. politika Industria eta ete-ak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea

Industria eta ete-ak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea (zifrak milioi eurotan)	Inbertsioak 2020-2024
✓ Industria-garapena: Basque Industry 4.0, ETEei laguntzea, reshoring-a eta finkatzea, krisian dauden enpresei laguntzea, zerbitzu aurreratuak eta sormen-industriak, eta Health Cluster indartzea	1.004
✓ Enpresentzako maileguen finantza-kostua murriztea (COVID 19)	53
✓ Enpresak nazioartekotzea	107
GUZTIRA	1.164

Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barne-berresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude.

I. ardatza – Ekonomia Suspertzea

4. politika Industria eta ete-ak, zerbitzu aurreratuetak, sormen-industriak eta nazioartekotzea (i)

Jarduera-ildoak

INDUSTRIA GARATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA

Trantsizio teknologikoa eta digitala. Basque Industry 4.0

- Inbertsioak indartzea enpresen lehiakortasuna hobetu, digitalizatu eta automatizatzeko orduan aurrera egiteko (Gauzatu Industria programen bidez, enpresa teknologiko eta berritzaileentzat, eta RENOVE Industria Programaren bidez, Industria 4.0 sustatzeko), bai eta langileentzako telelanaren gaitasunak eta aukerak indartzea ere.
- Basque Artificial Intelligence Center-a garatzea eta 5G Sareak ezartzea
- Produktuetatik irtenbideetarako trantsizio-prozesua sustatzea, zerbitzu aurreratuen enpresak sartuta.

Enpresa txiki eta ertainen digitalizazio eta berrikuntzarako babesa

- Enpresa txiki eta ertainak babesteko plan zehatza garatzea, digitalizazioan aurrera egiteko eta berrikuntza teknologikoan eta ez teknologikoan oinarritutako irtenbideen aplikazioan aurrera egiteko erraztasunak jartzeko

Krisian dauden sektoreei laguntza eta azpiegiturei bultzada

- Egungo osasun-larrialdiaren ondorioz zailtasunak dituzten enpresei zuzendutako babes-programa indartzea, trantsizio teknologiko-digitala eta energetiko-ingurumenekoa gainditzen laguntzeko (Bideratu Berria, Bideratu Covid-19 eta Indartu programen bidez)
- Babes-azpiegiturak sustatu, besteak beste Parke Industrial eta Teknologikoen Sareak, eta klusterren politika indartuz.

Industria Garapena, Reshoring eta Finkatzea

- Industria-gaitasun estraterjiko berriak sortzea, euskal ekonomiarako funtsezko sektoreen Reshoringa sustatzeko, esaterako osasun-arloan.
- Sektore gakoetan dauden eta hazteko eta nazioartekotzeko potentziala duten funtsezko sektoreetan enpresak indartzea, egungo programak eta sortu berriak sustatuz: kapitalean parte hartzea (Finkatuz funtsa), hazkundean laguntzea (Arrisku-kapitala), eta tokiko balio-kateak indartzen dituzten proiektu eragileetan inbertitzea.

Health-Klusterraren indartzea

- Osasun-sektorearen eta teknologia- eta enpresa-sektorearen arteko lankidetzak indartzea, Euskadin BPGd-ari eta enpleguari ekarpena egingo dion osasun-sektore indartsu bat sortzeko.

Zerbitzu aurreratuetak eta sormen-industriak

- Industriaren lehiakortasuna hobetzea, bere produktuei zerbitzu aurreratuen balio erantsia gehituz (ingeniaritza, teknologia, marketina, finantza-zerbitzuak...) eta sormen-industriak bultzatuz (bideojokoak, eduki digitalak, diseinua, etab.).

I. ardatza – Ekonomia Suspertzea

4. politika Industria eta ete-ak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea (ii)

Jarduera-ildoak

ENPRESAK NAZIOARTEKOTZEKO PLANA 2025

Nazioartekotzea sustatzeko zerbitzuak indartzea

- Nazioartekotzeko Euskal Agentzia indartzea eta kanpoan bulego berriak irekitzea.
- EAEko ETEak nazioartekotzen laguntzeko zerbitzu-zorroa zabaltzea eta nazioarteko zaintza- eta alerta-sistema bat sortzea erreferentziazko nazioarteko erakundeekin aliantza estrategikoak eginez (Basque Trade aukeren atari berria).
- Basque Trade & Investment-ek Merkataritza Ganbarekin duen lankidetzatza sustatzea, enpresa txiki eta ertainak nazioartekotzeko babesa emateko orduan

Basque Country marka sendotzea

- Euskadi Basque Country marka orokortzea eta zabaltzea, atzerrian dauden euskal enpresei aintzatespena eta ospea emateko tresna gisa, eta haien nazioarteko proiektzioa sustatzea.

Kanpoko inbertsio publikoko proiektu pilotuak indartzea

- Euskadik alde askoko erakundeen inbertsio publikoaren nazioartekotze-proiektuetan duen partaidetza indartzea. Egungo krisiaren ondorioz, ziur asko nazioarteko inbertsio publikoa handitu egingo da, eta igoera hori aprobetxatu nahi da hainbat sektoretan: osasun-azpiegiturak, eraginkortasun energetikoa, hiri-mugikortasun jasangarria, Smart Cities, saneamendua...

Talentua garatzea eta erakartzea

- Nazioartekotzeko beken programak indartzea, atzerrian euskal talentua prestatzeko eta nazioarteko talentua erakartzeko.

Nazioarteko bat-egiteak eta eskuraketak bultzatzea

- Euskal enpresa-taldeek hazkuntza-eta sendotze-prozesuak babestu nazioarteko bat-egiteen eta eskuraketen bidez, merkatu-adimeneko tresnen bidez aukerak identifikatzeko eta beharrezko inbertsioei lagundu.

I. ardatza – Ekonomia Suspertzea

5. politika Elikagaien industria aktibatzea

Elikagaien industria (zifrak milioi eurotan)	Inbertsioak 2020-2024
✓ Nekazaritza eta Landa Garapena ('from farm to fork' – 'baserritik mahaira')	385
✓ Arrantza	100
✓ Elikagaien sustapena eta kalitatea	128
GUZTIRA	613

Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barne-berresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude.

I. ardatza – Ekonomia Suspertzea

5. Politika Elikagaien industria aktibatzea

Jarduera-ildoak

Nekazaritza politika bateratuaren erakundearteko plan estrategikoa. Euskadiko gastronomia eta elikaduraren plan estrategikoa

Belaunaldien arteko errelebua

- Lehen sektorearen etorkizuna bermatzea, belaunaldien arteko errelebua ziurtatuz eta ekintzaile eta profesional berriak erakarriz.

Dibertsifikazio ekonomikoa

- Landa-inguruan eta kostaldean dibertsifikazio ekonomikoa sustatzea, balio-kate berrien bidez garatzeko aukerak dituzten nitxoetan (bioekonomia, turismoa, osasuna eta ongizatea, teknologia berriak, etab.).

Nekazaritza ekologikoa eta jasangarria

- Euskadin ekoizpen ekologikoa bultzatzea eta nekazaritza-praktika egokiak sustatzea, klima-aldaketaren ondorioak prebenitu eta arintzeko.

Lehiakortasunaren hobekuntza

- Lehen sektorearen eta elikagaigintzaren lehiakortasuna sustatzea, sektoreen egituraketa eta balio-kateko mailen arteko lankidetzak bultzatzen duten programen, laguntza- eta finantza-tresnen bidez, masa kritikoa irabazteko, bai eta salmenta-kateak nazioartekotu eta dibertsifikatzea ere.
- Nekazaritzaren sektorearen lehiakortasuna hobetzea, animalien ongizatea eta kalitatea, elikagaien segurtasuna eta jasangarritasuna nahiz eraginkortasuna bezalako irizpideen arabera.
- Tokiko produktuak merkaturatu eta sustatzeko bide laburrak sustatzea balio-katea egituratuz.
- Kontratazio publikoan ingurumen-klausulak eta tokiko produkzioari laguntzeko klausulak txertatzea.
- Proiektu berritzaile eta estrategikoak sustatzea, elikadura-sistema propioa garatzeko, lurraldean ekoizpenik handiena modu jasangarrian, sozialean, ekonomikoan eta ingurumena zainduz ematen dela bermatze aldera.

Arrantzako europako funtsaren programa operatiboa

Belaunaldien arteko errelebua eta talentuaren erakarpina

- Gazteek arrantza-sektoreko enpresen titulartasuna har edo/eta sar dezaten sustatzea.
- Talentua atxikitzea eta erakartzea nautikako eta arrantzako prestakuntza-zentroetatik arrantza-sektoreko aginte-postu kualifikatuetara (ITSASORATU programa)

Arrantza jasangarria

- Stockak maila jasangarrietan mantentzea, kudeaketa-planak aplikatuz.
- Legez kanpoko arrantzaren eta iruzurraren aurkako borroka areagotzea, trazabilitate-sistema hobetuen bidez.

Akuikulturaren sustapena

- Akuikultura babestea, eta, bereziki, itsas akuikultura, proiektu berritzaileak bultzatuz, akuikultura-parkeak eraikiz eta enpresa berriak sortuz.

I. ardatza – Ekonomia Suspertzea

6. Politika Merkataritza eta Turismo eta Kultura Industria suspertu

Merkataritza eta Turismo eta Kultura Industria (zifrak milioi eurotan)	Inbertsioak 2020-2024
✓ Merkataritza	84
✓ Turismoa eta ostalaritza	76
✓ Kulturaren industria	153
GUZTIRA	313

Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barne-berresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude.

I. ardatza – Ekonomia Suspertzea

6. Politika Merkataritza eta Turismo eta Kultura Industria suspertu

Jarduera-ildoak

Merkataritza

Kualifikazioa eta berritzea

- Prestakuntza eta trebakuntza hobetzea sektorearen profesionalizazioan aurrera egiteko, Merkataritza Eskolaren eta gela digitalen sorrera nabarmenduz, besteak beste.
- Gazteen kontratazioa sustatzea sektorea berritzeko, beka-programak indartzea eta belaunaldien arteko erreleboa bultzatzea.

Merkataritzaren lehiakortasunaren hobekuntza

- Merkataritzako lankidetzeta, dinamizazio eta lehiakortasunerako estrategien garapena bultzatzea, dauden neurriak indartuz, besteak beste Hirigune Programa.
- Merkataritzako Bulego Teknikoak sendotzea merkataritzako enpresa-sektoreari laguntzeko aktibo nagusi gisa.

Merkataritzaren, turismoaren eta kulturaren arteko sinergieiei bultzada

- Sektoreen arteko sinergiak bultzatzea eta HIRIA 3.1 programa indartzea.

Digitalizazioa eta dibertsifikazioa

- Negozio-eredu berriak garatzen laguntzea, ekonomia digitalean aukerak aprobetxatuz eta digitalizatorako, big datarako eta adimen artifizialerako irtenbideak lehentasunez ezartzea sustatuz.

Turismoa eta ostalaritza.

Turismo jasangarrirako euskal estrategia (2020-2030)

Jasangarritasuna, Erantzukizuna eta Bikaintasuna

- Euskadi-Basque Country marka bultzatzea, helmuga turistiko jasangarri, arduratsu eta bikainari lotuta.
- "Ingurune, espazio eta establezimendu jasangarrien Top ten" katalogo bat egitea.
- Berdintasunerako eta enpresen erantzukizun sozialerako programak bultzatzea.

Lehiakortasunaren hobekuntza

- Lankidetzeta eta dinamizazio sektorialeko estrategiak eta tokiko ekonomien garapena sustatzea, laguntza-programak indartuz.
- Turismoaren adimen lehiakorreko sistema bat garatzea.
- Belaunaldien arteko erreleboa eta kudeaketa- eta negozio-ereduen berrikuntza bultzatzea eta digitalizazioa bultzatu, Berriz Enpresa programa bezalako ekimenen bidez.

Kultura-industriak. Euskadi Sortzailea

- Euskal Barruti Sortzaile baten sorrera eta kultura- eta sormen-industrien sektorearen garapena bultzatzea, turismoarekin eta merkataritzarekin sinergiak eta lankidetzak bilatuz, bai eta I+G+b arloko ekimen bateratuak ere, RIS3 Euskadi Estrategiako gainerako lehentasun-esparruekin.

II.ARDATZA: ENPLEGUA SORTZEA

TRAKZIO-POLITIKEN XEHETASUNA

7. EKINTZAILTZA. ENPRESA BERRIAK

8. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

9. LANERATZEA. TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK

10. RENOVE PROGRAMAK. ERAIKUNTZAREN BIRGAIKUNTZA

11. ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK

12. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEKO TALKA-PLANA

II. ardatza – Enplegua sortzea. Inbertsioen laburpena

Politika eragileak	2020-2024	
	INBERTSIOAK	ENPLEGUAK
7. EKINTZAILETZA. ENPRESA BERRIAK	128	10.790
8. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA	342	42.100
9. LANERATZEA. TOKIKO ETA ESQUALDEKO ENPLEGU-PLANAK	577	26.110
10. RENOVE PROGRAMAK. ERAIKUNTZAREN BIRGAIKUNTZA	406	15.000
11. ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK	**	10.720
12. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEKO TALKA-PLANA	162	25.800
ENPLEGU PROGRAMA GUZTIRA	1.615	130.520

(*) Oharra: 2020-2024 legegintzaldirako kalkulaturako aurrekontuei eta enpleguari buruzko datuak, legegintzaldia hasi eta lehenengo urtean egozpena eginda (enplegua sortzeko, hasierako estimazioen % 30 hartu da 2020an eta % 70 2021ean, % 100eko EPEak izan ezik, pandemiaren eragina deskontatzeko. Aurrekontuetan 2020ko guztizkoaren % 50 kalkulatu da).

(**) Oharra: Ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. Kapituluko Orokorrean (Langileak) sartuta daudelako.

II. ardatza – Enplegua sortzea

7.Politika Ekintzailletza. Enpresa berriak

Ekintzailletza. Enpresa berriak (inbertsioak, zifrak milioi eurotan)	2020-2024	
	Inbertsioak	Enpleguak
✓ MikroETEak eta pertsona autonomoak	26	4.565
✓ Lehen sektoreko enpresa berriak	13	1.245
✓ Gizarte Ekonomiako enpresa berriak	6	747
✓ Turismo- eta merkataritza-sektoreko enpresa berriak	8	913
✓ Enpresa berri berritzaileak	75	3.320
GUZTIRA	128	10.790

Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barne-berresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude.

II. ardatza – Enplegua sortzea

7.Politika Ekintzailtza. Enpresa berriak

Jarduera-ildoak

Erakundearteko ekintzailtza-plana

Sortu berriak diren mikroenpresa txiki eta ertainak eta autonomoak

- Ekintzaileei ideia garatzen eta enpresa-proiektua abian jartzen laguntzea, prozesuaren fase guztietan lagunduz, finkatu arte, honako hauek barne: laguntza ekonomikoak; aholkularitza aditua eta mentoring-zerbitzuak; langabeziaren kapitalizazioa...
- Enplegua eta enpresa-jarduera sustatzen duten toki-erakundeekiko lankidetzaren sustatzea

Barne-ekintzailtza berritzailea

- Enpresa baten baitan sortutako proiektuak laguntzea, barne-ekintzailtza berritzailearen bidez, euskal enpresen barneko ekintzailearen ahalmena aprobetxatu ahal izateko (Barne-ekintzaile programa kasu), eta inbertsio berritzaileak egitea lehendik dauden enpresetan enplegua sortzeko eta eusteko (Gauzatu Berria programaren bidez, esaterako).

Enpresa berri berritzaileak

- Oinarri teknologiko eta berritzaileko enpresa berriak sortzen laguntzea:
 - Laguntza ekonomikoak eta finantza-laguntzak
 - Aholkularitza eta laguntza BICen bidez (enpresa-berrikuntzako zentroak)
 - Aholkularitza, mentoring eta coaching zerbitzuak
 - Nazioarteko merkatuetan sartzeko laguntzak

Nazioarteko start-up-en erakarpina

- Euskal enpresa handiak mundu osoko start-up-ekin konektatu daitezkeen sustatzea, berrikuntza-proiektuak bultzatzeko eta Euskadin hazkunde-ahalmen handia duten enpresa berritzaileak ezar daitezkeen sustatzeko (BIND 4.0 plataforma).

ETE berriak elikagaien sektorean, gizarte-ekonomian, merkataritzan eta turismoan

Berariazko programen bidez, enpresa berriak sortzen laguntzea enplegua sortzeko potentziala duten sektoreetan, hala nola:

- **Elikadura-katearen sektorea:** landa-eremuan jarduteko programa espezifikoak indartzea eta/edo sortzea (Leader, Erein, Gatunek eta Geroa programak kasu), tokiko erakunde, elkarte eta fundazioekin lankidetzan
- **Ekonomia Soziala:** babesa ematea programei, ekonomia sozialeko enpresa berriak sortzeko, nahiz horiek finkatu eta garatzeko, eta enpresa-eredu hori Bind 4.0n sartzeko
- **Merkataritza eta turismoa:** turismo jasangarriarekin eta tokiko kontsumoarekin lotutako enpresak sortzeko eta/edo jarraitzeko laguntza

II. ardatza – Enplegua sortzea

8.politika Enplegurako prestakuntza

Enplegurako prestakuntza (inbertsioak, zifrak milioi eurotan)	2020-2024	
	Inbertsioak	Enplegua
✓ Lan-orientazioko programak	35	16.600
✓ Nekazaritza- eta arrantza-trebakuntzarako programak (elikatze-katea)	3	519
✓ Prestakuntza, kontratatze konpromisoarekin, Lanbide Heziketako ikastetxeekin lankidetzan	14	1.245
✓ Langabeak laneratzeko prestakuntza	222	23.736
✓ Landunak birziklatzeko prestakuntza	68	*
GUZTIRA	342	42.100

* Birziklatze-programek enpleguan egonkortasun eta kalitate handiagoa dute, baina zuhurtasun-hipotesiengatik ez da aurreikusten enplegua zuzenean sortzea.

Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barne-berresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude.

II. ardatza – Enplegua sortzea

8.politika Enplegurako prestakuntza

Jarduera-ildoak

Lan-orientazioa

- Langabetuei laguntza eta aholkularitza ematea, beren enplegarritasuna hobetu dezaten, laneratzeko ibilbide integralen diseinuarekin lotutako lan-orientazioko zerbitzu eta ekintzen bidez, enplegutik urrunen dauden pertsonengan arreta berezia jarrita. Ibilbide horiek irismen integrala izango dute, eta, hala, horren barruan sartuko dira pertsonaren profilaren diagnostikoa eta analisia, ibilbide pertsonalizatuaren diseinua eta beren garapenerako laguntza, enpresekiko bitartekaritza eta ondorengo jarraipena, enpleguan txertatzen direla bermatzeko.

Nekazaritza eta arrantzako trebakuntza

- Langabeei eta landunei zuzendutako nekazaritza eta arrantzako trebakuntzako programak sortzea edo indartzea. Programa horiek lanbide-heziketako zentroetako irakasle adituek emango dituzte.

Kontratazio-konpromisodun prestakuntza

- Enpresek kontratatzeko konpromisoa duten langabeentzako prestakuntza-ekintzen deialdiak garatzea eta indartzea, lanbide-heziketako zentroekin lankidetzan. Helburua berriazko prestakuntza eskaintzea da, langileak enpresetan lanean has daitezen, enpresen beharrezko zehatzak asetzeko, lanbide-profil zehatzak behar dituztelako, eta, lan-aukera baliatzeko, berriazko kualifikazio osagarria behar dutelako.

Langabeak laneratzeko prestakuntza

- Prestakuntza ekintzen berriazko programak eta deialdiak garatzea, lana eskuratzeko zailtasunak dituzten edo hari eusteko zailtasunak dituzten pertsonak laneratzeko, enpresekin, toki entitateekin eta lanbide heziketako ikastetxeekin lankidetzan..

Landunak birziklatzeko prestakuntza

- Landunen eskumenak eta kualifikazioak lanean eta ekoizpenean sortzen diren alaketetara egokitzeko eta horiek hobetzeko prestakuntza-ekintza eta -programak garatzea, beren gaitasunak eta enpresen lehiakortasuna nahiz produktibitatea areagotzeko. Landunen etengabeko prestakuntza profesionalen eta enpresen lehiakortasunerako erronka handietako bat da.
- Lanbide Heziketako zentroetan ezagutza teknologikoaren sorrera sustatzea eta ezagutza hori enpresetara helaraztea, langileen prestakuntza eta trebakuntzaren bidez, modernizazioaren eta digitalizazioaren erronkei erantzuten laguntzeko asmoz. Lanbide Heziketaren eremuan, Laneko Esperientzia Aitortzeko dispositiboa zabalduko da, euskal produkzio-sarera eta heziketa-ziklo guztietara hedatzeko.

II. ardatza – Enplegua sortzea

9.politika Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak

Laneratzea (inbertsioak, zifrak milioi eurotan)	2020-2024	
	Inbertsioak	Enpleguak
✓ Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak	174	14.525
✓ Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak laneratzeko laguntza (proiektu bereziak)	18	1.245
✓ Luzaroko langabeen laneratzea, sektore pribatuan kontratatze laguntzen bidez	6	518
✓ Laneratzeko programa espezifikoak enpresetan	58	3.182
✓ Desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa enpresetan (kontratazio mugagaberako laguntzak + enplegu lagundua)	8	830
✓ Enplegu-zentro bereziak	258	*
✓ Laneratze-enpresentzako laguntzak	45	*
✓ Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak sustatutako enplegua	10	5.810
GUZTIRA	577	26.110

* Programa horiek desgaitasuna duten eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegu-egonkortasuna bermatzen dute, baina zuhurtziazatik pentsatu da ez dutela enplegu berririk sortzen modu esanguratsuan.

Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barne-berresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude

II. ardatza – Enplegua sortzea

9.politika Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak

Jarduera-ildoak

Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak

- Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen bidez langabetuen kontratazioa sustatu eta enplegarritasuna hobetzea. Ekintza horien barruan sartzen da toki-erakundeek enplegua sustatzeko jarduerak egitea, tokiko enpresek kontratazioa suspertzea eta tokiko enpresa-proiektu estrategikoak garatzea.
- Era horretako ekintzak indartzea gune eta udalerrri kaltetuetan edo/eta lehentasunezko jarduera-guneetan (Meatzaldea, Ezkerraldea, Oarsoaldea eta Enkarterriak), babes-lerro espezifikoen bidez.

Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen laneratzea. Laneratzeko enpresentzako laguntzak

- Laguntza ematea prestakuntza-ekintzak, esperientzia praktikoa, laneratzeko laguntza, orientazioa, banakako laguntza eta enplegarritasuna eta laneratzea hobetzeko beste neurri batzuk konbinatzen dituzten “proiektu bereziei”. Proiektu hauen kolektibo onuradunak gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonak dira, eta behar espezifikoak dituzten pertsona landunak. Helburua, beraz, lan-merkatuan sar daitezela eta bertan jarraitu dezatela bermatzea da.

Luzaroko langabeen kontratazioa

- Enpresek kolektibo kaltetuenak kontratatu ditzaten erraztasunak jartzea (iraupen luzeko langabetuak, 45 urtetik gorakoak, emakumeak, menpeko pertsonak...), lan-merkatuan sar daitezela sustatzeko, kontratazioa sustatzeko programa espezifikoen bidez.

Enplegu-zentro bereziak

- Gizarte- edo enpresa-ekimenetik sortutako enplegu-zentro bereziak bultzatzea, desgaitasunak dituzten pertsonen eta lan-munduan sartzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen lanpostuei eusten laguntzeko.

Desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa

- Desgaitasuna duten pertsonen ohiko enpresetan kontratu mugagabeak egiteko laguntzak sustatzea, emakumeen kontratazioa sustatuz, eta lanpostua egokitzeko laguntza osagarriak indartzea.
- Zailtasun- eta desgaitasun-maila handienak dituzten pertsonak aldi baterako kontratatze laguntzak ematea, enpresentzako euskarri teknikoa barne.

Lana eta familia bateragarri egiteko pertsonak ordezkatzeko kontratazioa

- Lana eta familia bateragarri egiteko xedez eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileak ordezkatzeko langabeak kontrata ditzaten edo enplegatuen lanaldia zabal dezaten laguntzea.

II. ardatza – Enplegua sortzea

10.politika Renove programak. Eraikuntzaren birgaikuntza

Renove programak. Eraikuntzaren birgaikuntza (inbertsioak, zifrak milioi eurotan)	2020-2024	
	Inbertsioak	Enpleguak
✓ Etxebizitzaren Renove-a	143	10.269
✓ Ikastetxeen Renove-a	209	3.752
✓ Osasun-zentroen Renove-a	54	979
GUZTIRA	406	15.000

Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barne-berresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude

II. ardatza – Enplegua sortzea

10.politika **Renove programak. Eraikuntzaren birgaikuntza**

Jarduera-ildoak

Renove programak. Eraikuntzaren birgaikuntza

Birgaikuntzaren aldeko apustuak eragin garrantzitsua dauka, bai enplegua sortzeko orduan, bai ingurumenean eta gizartean. Ekonomia suspertu eta jasangarritasuna lortzeko orduan motor garrantzitsua da oraindik ere parke eraikia berritu eta birgaitzeko programa berrien garapena bultzatzea, eraginkortasun energetikoko irizpideen arabera eta zero isuriak dituzten erakinak lortzeko helburuarekin.

Eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzea erabakigarria izango da, Europako Itun Berdean eta Eusko Jaurlaritzaren Larrialdi Klimatikoaren Adierazpenean 2050erako ezarritako karbono-isurien neutraltasuna lortzeko. Gainera, aukera argia da birgaikuntzaren eta eraikuntzaren sektorean jarduera ekonomikoa bultzatzeko eta euskal ekonomian lanpostu berde berriak sortzeko, COVID-19ak sortutako egungo krisitik irteteko Europako Batzordeak ezarri dituen lehentasunekin bat eginez.

Eraikinek EBren energia-kontsumoaren % 40 eta berotegi-efektuko gasen isurien % 36 eragiten dute. Isurketa horiek, batik bat, eraikinak eraikitzean, erabiltzean, berritzean eta eraistean sortzen dira. Dagoeneko erabiltzen diren eraikinak irizpide horien arabera berrituz gero, energiaren guztizko kontsumoa % 5-6 murriztu liteke, eta karbono dioxidoaren isurketak % 5 jaitsi, gutxi gorabehera.

Testuinguru horretan, etxebizitzan, ikastetxe publikoen eta osasun-zentro publikoen eremuetan 3 birgaikuntza-programa babestuko dira batez ere:

- **Etxebizitzan RENOVEa:** Etxebizitzak birgaitzeko azpisektorean enplegua sortzea edo/eta finkatzea, eta etxebizitzan mantentze-egoera, irisgarritasuna eta energia-efizientzia hobetzea.
- **Ikastetxeen RENOVEa:** Enplegua sortu edo/eta finkatzea birgaikuntzaren azpisektorean, ikastetxe publikoetako birgaikuntza- eta hobekuntza-lanen bitartez.
- **Osasun-zentroen RENOVEa:** Enplegua sortu edo/eta finkatzea birgaikuntzaren azpisektorean, osasun-zentro eta -ekipamendu publikoetako birgaikuntza- eta hobekuntza-lanen bitartez.

II. ardatza – Enplegua sortzea

11. politika Enplegu publikoaren eskaintzak

Enplegu publikoaren eskaintzak (inbertsioak, zifrak milioi eurotan)	2020-2024	
	Inbertsioak	Enpleguak
✓ Administrazio Orokorra	*	1.150
✓ Osasuna	*	4.100
✓ Ertzaintza	*	1.900
✓ Hezkuntza	*	3.100
✓ Justizia	*	320
✓ Bestelakoak	*	150
GUZTIRA	*	10.720

(*) Ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. Kapitulu Orokorrean (Langileak) sartuta daudelako.

II. ardatza – Enplegua sortzea

12.politika Talka-plana. Gazteen enplegua

Talka-plana. Gazteen enplegua (inbertsioak, zifrak milioi eurotan)	2020-2024	
	Inbertsioak	Enpleguak
✓ Enplegurako prestakuntza duala	*	11.990
✓ Hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko programak	14	3.280
✓ Gazteen enplegurako prestakuntza-bekak	42	1.936
✓ Gazteak laneratzeko prestakuntza	18	2.728
✓ Gazteen enplegurako programak: Lehen Aukera, Errelebo Kontratua, Gazteen Itzulera eta Gazteak gizarteratzeko ekintza berritzaileak	65	4.150
✓ Gazteen ekintzailletza	23	1.716
GUZTIRA	162	25.800
Enplegu-programa orokorren eragina gazteen enpleguan		27.514
Guztira gazte enplegu sustatua		53.315

(*) Aurrekontua ez da sartu, Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko langileen gastuen kapituluan sartuta dagoelako
Oharra: Jasotako zifrak abiapuntuko egoera-markoa dira. Aldaketak edo barne-berresleipenak izan ditzakete, sail eskudunek hartzen dituzten erabakien arabera. Erabaki horiek urtero onartzen diren aurrekontuetan jasota daude

II. ardatza – Enplegua sortzea

12.politika Talka-plana. Gazteen enplegua (i)

Jarduera-ildoak

Gazteen enplegurako prestakuntza-bekak

- Euskal enpresentzat interesgarriak diren eremuetan titulatu berri diren gazteen prestakuntza eta kualifikazioa hobetzeko beka-programak indartzea, laneratzeko ekintza berritzaileen bidez, beste agente batzuekin lankidetzan, eta esperientzia praktikoaren bidez, besteak beste honako eremuetan: nazioartekotzea, inguru zientifiko-teknologikoa edo nekazaritza-arrantzaren sektorea nahiz elikagaigintza.

Hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko programak

- Hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko programak indartzea, unibertsitateekin eta lanbide-heziketako zentroekin lankidetzan, eta, horretarako, esperientzia praktikoa sustatzea, euskal enpresetan enplegu kualifikatuan aritzeko ezagutzak, gaitasun teknikoak eta trebetasunak areagotuz.

Enplegurako lanbide-heziketa eta unibertsitate-heziketa duala

- Prestakuntza dualaren eredia sustatzea unibertsitateen eta lanbide-heziketaren eremuan, eskumenen garapena azkartzeko eta eremu profesionaletara egokitzeko, ikasleen prestaketa indartu eta lehiakortasuna hobetze aldera, prestakuntza dualeko programak hezkuntza-maila guztietara (Lanbide Heziketa eta Unibertsitateak) eta euskal ekonomiako sektoreetara hedatuz.

Gazteak laneratzeko prestakuntza

- Gazteen enplegurako prestakuntza-ekintzak eta kualifikazio baxuko gazteen laneratzeko eta gizarteratzeko prestakuntza-ekintza espezifikoak indartu eta sustatzea, enpresen eskarietara egokitzeko eta erantzuteko duten gaitasuna hobetze aldera.

II. ardatza – Enplegua sortzea

12.politika Talka-plana. Gazteen enplegua(ii)

Jarduera-ildoak

Lehen Aukera

- Langabezian dauden edo lan-esperientzia gutxi duten pertsonen kontratu mugagabeak edo gutxieneko iraupena duten praktikaldiak egiten laguntzea, emakumeen kontratazioa sustatuz.

Errelebo-kontratua

- Enpresetako plantillak berritzen laguntzea, 30 urtetik beherako edo 45 urtetik gorako lanaldi osoko errelebo-kontratuen edo kontratu mugagabeen bidez, emakumeak kontratatzekeo pizgarriak emanez.

Gazteen itzulera

- Gure erkidegotik kanpo prestatu ondoren Euskadira itzuli nahi duten edo azken sei hilabeteetan itzuli diren gazteak enpresetan barne har ditzaten sustatzea. Kontratu mugagabeak eta emakumeen itzulera sustatuko dira.

Gazteak gizarteratzeko ekintza berritzaileak

- Lehen lan-aukera bilatzen ari diren gazteen enplegarritasuna handitzeko jarduerak garatzea. Besteak beste, honako jarduerak egin daitezke: harrera egitea eta enplegarritasuna diagnostikatzea, profesionalen, mentoreen eta abarren plan indibidualizatuak diseinatzea, eta zehaztutako gizarteratze-plan pertsonala gauzatzen laguntzea eta haren jarraipena egitea.

Gazteen ekintzailtza

- Unibertsitateko eta Lanbide Heziketako ikasleen artean ekintzailtzaren kultura bultzatzea, enpresa berrien sorrera sustatuz eta bultzatuz unitate espezializatu propioetatik (mintegiak, inkubagailuak, etab.), pertsona ekintzaileari hasierako ideiatik enpresa berriaren sorkuntzara lagunduko diotenak (adib. Urrats Bat programa LHko zentroetan).
- Era berean, gazteek mikroenpresa txiki eta ertainen edo/eta pertsona autonomoen ekintzailtza-programa edo -ekimenetan duten presentzia indartzea.

BERPIZTU

7. Egindako kontraste-prozesua

Erakundeekin, Gizarte Elkarrizketarako Mahaiarekin eta Ekonomia eta Gizarte eragileekin - 2020ko urria

Zb.	Entitatea	Erakundeak
1	Foru Aldundiak	Arabako Foru Aldundia; Bizkaiko Foru Aldundia; Gipuzkoako Foru Aldundia
2	Gizarte Elkarrizketarako Mahaia	Confebask; CCOO; UGT; Lan Harremanen Kontseilua; Eusko Jaurlaritza (Lan eta enplegu saila; Ekonomiaren Garapen , Jasangarritasun eta Ingurumeneko saila; Lehendakaritza)
3	Eusko Jaurlaritzako sailordetzak (I.ardatza – Ekonomia suspertzea)	Ekonomiaren Garapen , Jasangarritasun eta Ingurumeneko saila; Ekonomia eta Ogasun saila; Hezkuntza saila; Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako saila; Kultura eta Hizkuntza Politika saila; Turismo, Merkataritza eta Kontsumo saila; Lehendakaritza
4	Eusko Jaurlaritzako sailordetzak (II.ardatza – Enplegua sortzea eta III – Enpleguaren kalitatearen hobekuntza eta genero berdintasuna	Lan eta Enplegu saila; Gobernantza Publikoa eta Autogobernuko saila; Ekonomia eta Ogasun saila; Hezkuntza saila; Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako saila; Osasun saila; Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako saila; Lehendakaritza
5	Mondragon Corporación	Presidentzia
6	Euskal Merkataritza Ganberak	Bilboko Merkataritza Ganbera; Arabako Merkataritza Ganbera; Gipuzkoako Merkataritza Ganbera
7	Konfekoop	Zuzendaritza taldea
8	Elkargi	Zuzendaritza taldea
9	Federación de EPSV de Euskadi	Zuzendaritza taldea
10	ELA sindikatoa	Idazkaritza Nagusia (*)
11	LAB sindikatoa	Idazkaritza Nagusia (*)

(*)Urriaren 16an, jakinarazpen bat bidali zitzaien ELA eta LAB sindikatueta Idazkaritza Nagusiei, oinarrien dokumentua aurkezteko eta haien ekarpena eskatzeko.

BERPIZTU

8. Gobernantza-eskema

1) Kontseilu Errektorea

Honako hauek osatzen dute:

- ✓ Lehendakari, bertako Lehendakaria
- ✓ 2. Lehendakariordea eta Lan eta Enplegu sailburua
- ✓ Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua
- ✓ Ekonomia eta Ogasuneko sailbura
- ✓ Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Diputatu Nagusiak
- ✓ Eudel-eko presidentea

2) Sailarteko Batzordea

Honako hauek osatzen dute :

- ✓ Programan jasotako ardatzen, politiken eta jarduera-planen arduradunak (sailburuorde maila)
- ✓ Sailen arteko mahaiaren koordinatzailea (Lehendakaritzako idazkari nagusia)

3) Elkarrizketa Sozialaren Mahaia eta jarraipenerako Mahai Sozioekonomikoa

- ✓ Elkarrizketa Sozialerako Mahaiak parte-hartze aktiboa eta lehenetsuneko izango du Berpiztu programaren urteko jarraipenean eta balorazioan.
- ✓ Mahai Sozioekonomikoan parte hartzen duten eragile ekonomiko eta sozialek programaren gauzatzeari buruzko urteko informazioa jasoko dute

